

ESKOLA-GARRAIOAREN ARAUAK



AUZALAR ESQUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA

Autobus zerbitzuak hobe funtziona dezan eta zuen seme-alabentzat seguruagoa izan dadin, mesedez. ERABILERAREN GAINEKO GOMENDIO hauek kontuan har itzazuen eskatzen dizuegu:

1. ERABILERARAKO GOMENDIOAK:

1. Haur Hezkuntzako ikasleek egunero eraman beharko dute ondo ikusteko moduan identifikatzeko txartela.
2. Lehen Hezkuntzako ikasleek (3. mailara arte) identifikazio-agiria eraman beharko dute egunero motxilan.
3. Edozein arrazoiengatik semea edo alaba ez bada eskola-garraioa erabiltzera joango etxera itzultzean, tutoreari eta autobusaren zaintzaileari jakinarazi beharko diote sinatutako idazki baten bidez (whatsapp).
4. Ikaslea jaso ohi duen pertsonak ezin badu egunen batean jaso, autobusaren zaintzaileari ere jakinarazi beharko dio sinatutako idazki baten bidez (whatsapp).
5. Baimen sinatua behar da, eta whatsapp bidez abisatu behar zaio zaintzaileari, baldin eta Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera ikasleak etxera bakarrik joaten badira, eta anaia edo arreba nagusi horrek arreba edo txikia heldurik gabe eramaten badu, anai-arreba txikiarentzako baimena ere sinatu beharko da.
6. Herri batean bakarrik diren familien kasuan, komenigarria litzateke autobusaren zaintzaileari telefonoz deitzea, baldin eta egunen batean ez badute autobusa erabiliko alperrik bidaiatu ez dadin.
7. Arazoren bat edo ustekaberen bat dagoenean, enpresaren erantzukizuna da ikasleak lehenbailehen zentrorra iristen saiatzea.
8. Oro har, aipatu beharreko edozein gorabehera tutoreak eta zaintzaileak ezagutu beharko dute beti.
9. Edozein gorabehera (autobusaren puntualtasuna, familien puntualtasunik eza, ikasleekiko arazoak, iradokizunak) Zuzendaritzari jakinarazi behar zaio, sortzen diren arazoak konpon daitezzen.

2. GARRAIATUTAKO IKASLEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK: Abuztuaren 23ko 568/2018 ebazpena, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandakoa.

2.1. LAGUNTAILEAREN EGINKIZUNAK:

1. Ikasleak jasotzea eta haiei lagun egitea ikastetxearen eremuaren barnetik eta ikastetxearen eremu barneraino. Irakasleen laguntza izango du.
2. Ikasleak ezarritako geralekuetan igo eta jaisten direla kontrolatzea eta garraio zerbitzua ikastetxeak emandako ikasleen zerrendako ikasleek bakarrik erabiltzen dutela kontrolatzea.
3. Mugikortasun murriztua duten ikasleei laguntzea autobusera igotzen eta autobusetik jaisten.
4. Ikasleei eserlekuak banatzea, kontuan harturik haien adina, nongoak diren edo bidezkotzat jotzen diren bestelako irizpideak.

5. Autobusa abiatu baino lehen ikasle guztiak eserita daudela egiaztatzea.
6. Egiaztatzea eskolako materialak (bizkar-zorroak, karpetak, etab.) dagozkien lekuetan daudela, haurrek ez dezaten arriskurik izan bidaian.
7. Ikasleak ongi portatzen direla begiratzea, borrokarik, eztabaidarik eta jokabide txarrik gabe.
8. Ikastetxeko zuzendaritzari ikasleen diziplinako hutsegiteen berri ematea, horrelakorik badago.
9. Ikastetxeko zuzendaritzari eskola-garraioaren funtzionamenduan egon litezkeen aldaketak jakinaraztea, garraiatutako ikasleen kopuruari, atzerapenei edo suerta litezkeen anomaliari buruz.
10. Garraioaren arduradunei laguntzea zerbitzua hobetzeko datuak hartzen eta kontrolatzen.
11. Zuzendaritzak aginduta, garraio zerbitzuko segurtasuna hobetzen laguntzen duen beste edozein.
12. Ikastetxeko zuzendaritzak agindu duen beste funtzio horietako bat hau da: inoiz ez uztea zortzi urte baino gutxiagoko ikasleak autobusetik jaisten eta etxera bakarrik joaten. Pertsona arduradun batekin utzi beharko dituzte beti, hau da, senide batekin edo familiak erabaki duen norbaitekin (idatzizko baimen batekin). Haurrak jasotzekopertsona arduradunik egon ezean, ikasleak ikastetxera eramango dira berriro. Ez bada familiarekin harremanetan jartzea lortzen, hurbilen dagoen autoritate publikoari jakinaraziko zaio (Foruzaingoa edo Guardia Zibila).

2.2. GIDARIAREN EGINKIZUNAK:

1. Ibilgailuaren segurtasun-sistemaren mekanismo guztiak egiaztatzea (larrialdietako irekidura-gailua, ateen itxitura, gailu optikoak...).
2. "Transporte Escolar" edo "Eskola-Garraioa" dioen kartela jartzea.
3. Eskola-garraioaren zerbitzua egiteari dagokion beharrezko dokumentazio guztia erabat eguneratua eramatea.
4. Larrialdietarako botikin on bat eramatea.
5. Eguraldi txarra dagoenean, kontu handiz ibiltzea.
6. Ibilbideko geldialdi guztietan gailu argi-emailea martxan jartzea.

2.3. GARRAIATUTAKO IKASLEARENTZAKO ARAUAK:

1. Ikaslea begiraleak banatutako tokian eseriko da. Kokalekua aldatu ahal izango da beharrezkoa dela uste bada.
2. Ibilbide osoan zehar dagokion eserlekuan eserita joan beharko da.
3. Ongi portatu beharko da, pertsona guztiak errespetatuz eta gidaria gogaitu gabe.
4. Horrez gain, ibilgailua eta bertako altzariak errespetatu behar ditu. Jatea eta objektuak lurrera botatzea debekatuta daude.
5. Entretenitu gabe igoko da autobusera edo jaitsiko da autobusetik.
6. Haur Hezkuntzako ikasleek identifikazio-txartela agerian eramango dute; Lehen Hezkuntzako ikasleek txartela bizkar-zorroan eramango dute.
7. Xedatutako arauak betetzen ez baditu, begiraleen edo garraio enpresaren langileen

esanei men egiten ez badie edo ikaslearen portaera desegokia bada, ikastetxeari jakinaraziko zaio eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetza arautzen duen abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuan xedatzen denari jarraiki erantzun beharko du.

Ikasleak ez baditu arau horiek betetzen edo behin eta berriro agindutakoari men egiten ez badio, ikastetxeak erabaki dezake garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea egoki deritzon arte.

2.3. FAMILIAREN ERANTZUKIZUNA

1. Haurrak autobusean garaiz uztea ea haien bila garaiz joatea.
2. Eskola-garraioaren arauak errespetatzea eta seme-alabei arau horiek errespetatu araztea.
3. Ezin bada haurren eske joan, pertsona heldu baten esku uztea eta autobuseko begiraleari jakinaraztea.

HARREMANETARAKO TELEFONOA: ESKOLA – 948 32 67 32